

2026EKO NPB PAC 2026


LURRAK MENDI IREKIAN BANATZEKO PROZEDURA, NPB- REN 2026ko KANPAINAN DEKLARATZEKO	PROCEDIMIENTO DE DISTRIBUCIÓN DE TIERRAS EN MONTE ABIERTO PARA SU DECLARACIÓN EN LA CAMPAÑA 2026 DE LA PAC
1.- ONURADUNAK:	1.- BENEFICIARIOS
Baztango Ordenantzetako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak bakarrik izango dira onuradunak.	<i>Se beneficiarán únicamente las personas solicitantes que cumplan los requisitos establecidos en las Ordenanzas del Valle de Baztan.</i>
2.- HEKTAREAK ESLEITZEA.	2.- ADJUDICACIÓN DE HECTÁREAS.
Lurrak banatzeko oinarrizko irizpidea herri lurretan alhatzen diren azienden buruak izanen dira eta buru hauek ALU-tan bihurtuko dira hektareen esleipena egiteko. Azienda bakoitzaren pisua ondokoa izanen da:	<i>El criterio básico para la distribución de los terrenos serán las cabezas de ganado que se pasten en terrenos comunales, que se convertirán en UGM para la asignación de hectáreas. El peso de cada ganado será el siguiente:</i>

ANIMALIA MOTA	ALU
BEHIA	0.8
MIGA	0.7
ZALDIKIA (24 hilabetetik gorakoak)	0.8
ARDIAK	0.1

TIPO DE GANADO	UGM
BOVINO ADULTO	0.8
NOVILLA	0.7
EQUINO (mayor de 24 meses)	0.8
OVINO	0.1

Balore hauek NPB laguntzak arautzen dituen 1048/2022 errege dekretuko V eranskinetik (anexo V) kopiatu dira. Zaldikietako 24 hilabeteko muga Baztango batzar nagusiaren erabakia izan da. Taula hau erantzukizunpeko adierazpeneko (1. Eranskina 3. Taula) kalkulua egiteko erabiliko da.

Estos valores han sido tomados del anexo V (anexo V) del Real Decreto 1048/2022 por el que se regulan las ayudas de la PAC. El límite de 24 meses para el ganado equino ha sido decidido por la Junta General de Baztan. Dicha tabla se utilizará para el cálculo de la Declaración responsable (1. Anexo 3.tabla).



2026EKO NPB PAC 2026

Banaketa-proposamenak lehen instalazioko proiektua duten abeltzain gazteen aldeko ponderazioa dakar, bai eta sektoreko profesionalak diren lur-eskatzaileen aldekoa ere, ATPak, lehentasunezko ustiategiak eta gazteak positiboki haztatzen ditu.

Era berean, gorantz haztatzen dira:

- Emakumeen titulartasuneko lehen instalazioaren kasuistika,
- Ekoizpen ekologikoa. Ustiategia edo guttienez, jarduera nagusia, CPAENen ekologiko gisa inskribatua egotea ezinbertzekoa izanen da.
- Ekoizpen-zikloa osatzen duten ustiategiak. Halakotzat hartuta eraldaketarako behiak eta/edo ardiak jeztea, esnea saltzea eta edozein motatako aziendak gizentzea. Betiere, ustiapenaren jarduera nagusia horretara bideratua dagoelarik.

Gainera, aprobetxamenduan dagoen iratze hektarea bat baino gehiago moztu edo sastraka kendu izana egiaztatzen duten eskatzaileei hobaria emanen zaie. Mendizainek kontrolak urte akaberan eginen dituzte, SITNA aplikazioa edo antzeko geolokalizazio baliabideak erabiliz.

Aitortutako ALU-ak hartuko dira oinarritzat. Haztapan-sistema bat proposatzen da, termino hauetan:

- Profesionalak ez direnak: oinarria
- Lehentasunik gabeko ATP: oinarria + % 10
- Lehentasunezko ustiapena: oinarria + % 20
- Ustiapena. 1. instalazioa:
 - Gizonezko sustatzailea: oinarria + % 70
 - Emakumezko sustatzailea: oinarria + % 80

Sozietateen kasuan, dagokion haztاپena

La propuesta de distribución supone una valoración en favor de las jóvenes ganaderas y los jóvenes ganaderos con proyecto de primera instalación, así como de las demandas de profesionales del sector, ponderando positivamente los ATP, las explotaciones prioritarias y las de jóvenes ganaderos.


Asimismo, se puntúan hacia arriba:

- La primera instalación de titularidad de mujeres,*
- Producción ecológica. La explotación o, al menos, su actividad principal esté inscrita como ecológica de la CPAEN.*
- Las explotaciones que componen el ciclo productivo. Considerando como tal el ordeño de vacas y/o ovejas de transformación, venta de leche y engorde de cualquier tipo de ganado. Siempre que la actividad principal de la explotación esté orientada a ello.*

Además, se bonificará a las personas solicitantes que acrediten la corta o desbroce de más de una hectárea de helechal existente en el aprovechamiento. Los controles se realizarán a final de año, utilizando la aplicación SITNA o medios similares de geolocalización.

Se tomarán como base las UGM reconocidas. Se propone un sistema de ponderación en los siguientes términos:

- No profesionales: base*
- ATP sin prioridad: base + 10 %*
- Explotación prioritaria: base + 20%*



2026EKO NPB PAC 2026

kalkulatuko da, bazkide bakoitzari adierazitako terminoak aplikatuz.

Halaber, lan-sistema kontuan hartuta hobariak emango dira:

- Ustiapena Ekologikoa: % 20
- Ustiapena Ekoizpena: % 20
- 6 hilabetetik gorako lanaldi osoko langileak kontratatzea: % 10

Iratze edo sasi-garbiketa komunala egin dutela egiaztatzen duten eskatzaileei % 2,5 (1-5 ha) edo % 5 (> 5 ha) hobaria aplikatuko zaie.

3.- PROZEDURA.

Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia onartu da (I. eranskina). Bertan, eskatzaile bakoitzak adieraziko du zenbat abelburu eta zein motatakoak eramango dituen bazkatzera bazkaleku itxietara (Erdiz, Belate, Lizartzu) edo mendi irekira.

Adierazpena sinatzen duenak konpromisoa hartzen du azientza kopuruari eta hartzen dituen betebeharrei buruz adierazitakoa betetzeko.

Erantzukizunpeko adierazpenen erregistroa 2026eko otsaileko hilabetean egingo da.

Aldez aurretik, otsailaren lehen hamabostaldian, adierazpenak eta aurkezpen-datak nahitaezkoak direla jakinaraziko da, bai udalaren webgunean, bai herrietako iragarki-tauletan, bai ohiko komunikabideei prentsa-ohar bidez.

Deklarazioak jaso ondoren, lurra banatuko da, eta udalaren webgunean eta iragarki-

- *Explotación. 1º Instalación:*

- *Promotor masculino: base + 70%*
- *Mujer promotora: base + 80%*

En el caso de sociedades, se calculará la ponderación correspondiente aplicando los términos indicados a cada persona socia.

Asimismo, se bonificarán teniendo en cuenta el sistema de trabajo:

- *Explotación Ecológica: 20%*
- *Explotación Producción: 20%*
- *Contratación de personal a tiempo completo superior a 6 meses: 10%*


A las personas solicitantes que acrediten haber realizado hiecho o desbroce comunal se les aplicará una bonificación del 2,5% (1-5 ha) o del 5% (> 5 ha).

3.- PROCEDIMIENTO.

Se aprueba el modelo de declaración responsable (Anexo I). En él, cada solicitante indicará el número y clase de cabezas de ganado que enviarán a pastar en los pastos de altura (Erdiz, Belate, Lizartzu) o en monte abierto.

La persona firmante de la declaración se compromete al cumplimiento de lo señalado en cuanto a número de ganado y obligaciones marcadas.

El registro de declaraciones responsables se realizará en el mes de febrero de 2026.



2026EKO NPB PAC 2026

tauletan argitaratuko da eskatzaile bakoitzari esleitu zaiona, jakinaren gainean egon dadin eta alegatu ahal izan dadin.

Eskatzaileek udal erregistroan jakinarazi beharko dute beren deklarazioari eragiten dion edozein gorabehera (gorabehera sanitarioak, laneko bajak...) (IV. eranskina), bai eta ganadua mendi irekira ateratzeko datak, bilketa datak, aldaketa guztiak ere, udaletxean zehatz-mehatz jakin ahal izateko une bakoitzean mendi irekian bazkatzen ari den ganadua (II. Eranskina).

Era berean, ezarritako datetatik kanpo bazkalekuetan egiten diren abereen mugimendu guztien berri eman beharko da udal-erregistroan. Nahitaezkoa izango da mugimendu horien arrazoa justifikatzea (horretarako IV. Eranskina erabilita).

4.- GUTXIENeko BAZKALEKU-BALDINTZAK

NPB hektareen onuradun izateko, Baztango Ordenantzetan jasotakoa betetzea eskatuko da.

Bazkalekuetan aziendak basozainen aurrean sartuko direla ohartarazten da.

Azienda bazkalekuetan sartzeko egunak hauek izango dira, betiere, ez bada suertatzen eragina izan dezakeen feri edo antzeko ekitaldirik:

- Lizartzuko sarrera: maiatzako 2. Ostirala eta ondoko asteko larunbata.
- Udaberriko sarrera Erdiz eta Belate: 2025eko ekainak 1 eta ondoko larunbata.
- Neguko sarrera Erdiz eta Belate: 2025eko irailaren 21a eta ondoko larunbata.

Edozein aldaketa edo data berria egonez

Previamente, durante la primera quincena de febrero, se comunicará la obligatoriedad de las declaraciones y fechas de presentación, tanto en la web municipal como en los tablones de anuncios de las localidades, así como en los medios de comunicación habituales.

Una vez recibidas las declaraciones, se procederá al reparto del terreno y se publicará en la página web y tablones de anuncios del Ayuntamiento lo que se le haya adjudicado a cada solicitante, para su conocimiento y posterior alegación, si procede.


Las personas solicitantes deberán comunicar en el registro municipal cualquier incidencia que afecte a su declaración (incidencias sanitarias, bajas laborales...) (IV. Anexo), así como las fechas de salida del ganado al monte abierto, fechas de recogida y cambios que permitan conocer con exactitud en el Ayuntamiento el ganado que pade en monte abierto en cada momento (Anexo II).

Asimismo, se hará constar en el registro municipal todos los movimientos de ganado que se realicen en los pastos fuera de las fechas establecidas. Será necesario justificar la causa de dichos movimientos (para ello se establece el anexo IV).

4.- CONDICIONES MÍNIMAS DE PASTAJE

Para beneficiarse de las hectáreas de PAC se exigirá el cumplimiento de lo recogido en las Ordenanzas de Baztan.

Se advierte que la introducción de ganado en la zona de pasto se realizará



2026EKO NPB PAC 2026

gero, udal zerbitzuek publiko eginen dute ohiko hedabide ofizialak erabiliz.

Azienden alhatze epeak , bazkalekutan zein mendi librean, urte naturalean hartuko dira.

Neguko alhatzea Belaten edo Erdizen egiten duten abeltzainek elurte sasoia kontuan hartu beharko dute eta aurretik beren aziendak larretzea beharrezkoa dute beren alhatze epeak betetzeko.

Sarrera-data desberdina eskatzen duten pertsonak Batzar Nagusiko lehendakariaren onospena izan beharko dute, ezartzen diren baldintzetan. Hauen artean, aldaketak sortzen dituen gastuen ordainketa beren gain hartzea.

5.- HEKTAREAK ESLEITZEKO MUGAK EZARTZEA

Honako muga hauek ezarri dira 2025eko kanpainarako:

- Eskatzaile partikularrak
 - Lehentasunezkoa: 125 Ha.
 - ATP: 80 Ha.
 - Gainerakoak: 40 Ha.
- Sozietateen eskatzaileak:
 - Profesional 1 + ez profesionala: 155 Ha. (125+30)
 - 2 profesionala + ez-profesionala: 220 Ha.(125+75+20)
 - 3 profesionala + ez profesionala: 285 Ha.(125+2x75+10)
 - 4 prof. (edo gehiago) + ez prof.: 350 Ha.(125+3x75+0)

Elkarte batetan ez profesional bat baino gehiago egonagatik, behin bakarrik

en presencia de los guardas forestales.

Las fechas de ingreso de ganado en los pastos de altura serán las siguientes, siempre y cuando no se produzcan ferias o eventos similares que puedan afectar a los mismos:


- *Entrada en Lizartzu: el 2º viernes de mayo y sábado de la semana siguiente.*
- *Entrada de primavera en Erdiz y Belate: 1 de junio de 2025 y sábado siguiente.*
- *Entrada de invierno en Erdiz y Belate: 21 de septiembre de 2025 y sábado posterior.*

Cualquier modificación o nueva fecha será publicada por los servicios municipales a través de los medios oficiales habituales.

Los plazos de pastaje del ganado, tanto en pastizales como en monte libre, se disfrutarán en el año natural.


Las ganaderas y los ganaderos que realicen el pastaje de invierno en Belate o en Erdiz deberán tener en cuenta la época de nevadas y la tendrán obligación de hacer pastar a su ganado previamente, para cumplir con los plazos de pastaje.

Las personas que soliciten una fecha de ingreso diferente, deberán contar con la aprobación del Presidente de la Asamblea General en los términos que se establezcan. Entre ellos, asumir el pago de los gastos que origine el cambio.



2026EKO NPB PAC 2026

kontatuko dute.	
6.- EZ-BETETZEAK	5.- ESTABLECIMIENTO DE LIMITES DE ADJUDICACION DE HECTAREAS
Egindako aitoren ez-betetzeak eta zigorrak Baztango Ordenantzetan jasotakoaren arabera gauzatuko dira.	<p><i>Se establecen los siguientes límites para la campaña 2025:</i></p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Solicitantes particulares</i><ul style="list-style-type: none">• <i>Prioritario: 125 Has.</i>• <i>ATP: 80 Has.</i>• <i>Resto: 40 Has.</i>• <i>Solicitantes sociedades:</i><ul style="list-style-type: none">• <i>1 profesional + no profesional: 155 Ha. (125+30)</i>• <i>2 profesional + no profesional: 220 Ha. (125+75+20)</i>• <i>3 profesional + no profesional: 285 Has. (125+2x75+10)</i>• <i>4 prof. (o más) + no prof.: 350 Ha. (125+3x75+0)</i> <p><i>Si en una asociación hay más de una persona no profesional, se contabilizará una sola vez.</i></p>
	.6.- NO CUMPLIMIENTOS
	<p><i>Los incumplimientos y sanciones de las declaraciones realizadas se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en las Ordenanzas de Baztan.</i></p>



2026EKO NPB PAC 2026


7.- GEHIENEZKO AZIENDA KOPURUA BAZKALEKUETAN.	7.- NUMERO MAXIMO DE CABEZAS EN PASTIZALES.
Gaur egun Baztango Bazkalekuetako eremua eta bertan dauden larreen azalera ondokoa da.:	<i>En la actualidad, la zona de los Pastos de Baztan y la superficie de los pastos que en ella se encuentran es la siguiente:</i>

	Eremua Ha-tan <i>Extensión Ha.</i>	Larrea Ha-tan <i>Pastizal en Ha.</i>
LIZARTZU	200	189
BELATE	200	114
ERDIZ	497	394

2024ko kanpainan gertatutakoa aintzat hartuz, derrigorrezkoa ikusten da gehienezko azienda kopurua zehaztea, animalien ongi izatea bermatzeko eta nekazarien antolamendua ez aztoratzeko.	<i>Teniendo en cuenta lo sucedido en la campaña de 2024, se considera necesario determinar el número máximo de ganado para garantizar el bienestar de los animales y no perturbar la organización de las agricultoras y los agricultores.</i>
---	---

	TOTALES UGM KOPURUA	
	UDA VERANO	NEGUA INVIERNO
LIZARTZU	300	300
BELATE	200	libre
ERDIZ	504	libre

Datu hauek azken urteetako azienda kopuruak kontutan hartuta erabaki dira.
Estos datos se han determinado teniendo en cuenta las cifras de ganado de los últimos años.



2026EKO NPB PAC 2026

Eskatzaileek (persona fisiko zein sozietateak) Ezingo dituzte inongo kasutan 60 ALU baino gehiago sartu bazkaleku desberdinetan.

Eskaera kopurua eskaintza baino haundiagoa bada, eskatzaile bakoitzak sar dezakeen azienda kopurua ondokoa izanen da:

- 10 ALUra arteko eskatzaileak: %100
- >10-40 ALU artean: %90
- >40-60 ALU artean : %80

Hori aplikatuta oraindik muga gainditzen bada:

- 10 ALUra arteko eskatzaileak: %90
- >10-40 ALU artean: %85
- >40-60 ALU artean : %75

Behin banaketa egin ondotik, gehieneko baloretara ez bada iristen, hauek ez dira beteko.

Eskatzaileek, bazkalekuen saturazioak behartuta, erantzukizunpeko adierazpenarekiko dituzten beherako aldaketekin modu honetara jokatu da:

1. Alhatze eremu aldaketak egin nahi baditu, bazkaleku aldaketa ez da baimenduko baina mendi libreria azienda botatzeko aldaketa baimenduko da.
2. Bazkalekuan sartu ezinik geratu diren ALU-ak ez dira kontutan hartuko lurren banaketa egiterakoan azienda horiek

Las personas solicitantes (personas físicas o sociedades) en ningún caso podrán ingresar más de 60 UGM en los distintos pastos.

En el caso de que el número de solicitudes sea superior al de la oferta, el número de animales que podrá incluir cada solicitante será el siguiente:

- *Solicitantes hasta 10 UGM: 100%*
- *De 10 a 40 UGM: 90%*
- *De 40 a 60 UGM : 80%*

Si por aplicación de la misma aún se supera el límite:


- *Solicitantes hasta 10 UGM: 90%*
- *De 10 a 40 UGM: 85%*
- *De 40 a 60 UGM : 75%*

Una vez realizada la distribución, si no se alcanzan los valores máximos, éstos no se cubrirán.

Las variaciones en la declaración responsable de los solicitantes, como consecuencia de la saturación de los pastos, se adoptarán de la siguiente forma:

1. No se autorizará el cambio de pastizal en el caso de que se pretenda realizar cambios en la zona de pasto, aunque sí se autorizará el cambio de ganado al monte abierto.

2. Las UGM que no hayan podido acceder a la zona de pastos no se



2026EKO NPB PAC 2026

<p>mendi librean alhatzen ez baditu.</p> <p>NPB dirulaguntzatarako hektareak eskatzen ez dituzten nekazariak, ez dituzte larretzeko mugarik izanen baina sarrera eta irteera datak errespetatu beharko dituzte.</p>	<p><i>tendrán encuesta en el reparto de tierras si el ganado no pasta en monte abierto.</i></p> <p><i>Los agricultores que no soliciten hectareas para subvenciones de la PAC no tendrán límite de pastos pero deberán respetar las fechas de entrada y salida.</i></p>
---	---